

**Ebazpena: 96/2023**

**Espedientea: 32/2019 eta 33/2019 metatua**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentek eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

### **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka planteatutako gatazkari buruz, JRLJAM jauna (aurrerantzean, JR jauna) eta MJCR andrea (aurrerantzean, MJ andrea) ezkontideen egoitza-aldaketaz zehazki (2013ko apirilaren 12tik eta 2005eko urtarrilaren 10etik aurrerako ondorioekin, hurrenez hurren). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 32/2019 eta 33/2019 espedientezenbakiakin.

### **AURREKARIAK**

**1.-** Ezkontideak diren JR jaunak eta MJ andreak Gasteizko O kalean dute zerga-egoitza aitortua.

**2.-** ZAEAk, hainbat egiaztapen-jarduketa egin ondoren (errekerimenduak Errioxako Osasun Zerbitzuari, OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuari,

Logroñoeko eta Gasteizko Udalei, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, Errioxako eta Arabako lurralde-ordezkaritzei, IBERDROLari, Errioxako Autonomia Erkidegoari, banku-erakundeei eta aitortutako bizilekuetara egindako bisitak, etab.), ondorioztatu egin du ezkontideek Logroñoeko S etorbidean dutela bizilekua 2013ko apirilaren 12tik eta 2005eko urtarrilaren 10etik, hurrenez hurren.

**3.-** 2018ko otsailaren 16an, ZAEAk JR jauna eta MJ andrea ezkontideen zerga-egoitza Logroñoeko S hiribidera aldatzeko proposamenak jakinarazi zizkion AFari, 2013ko apirilaren 12tik eta 2005eko urtarrilaren 10etik aurrerako ondorioekin, hurrenez hurren. 2018ko abuztuaren 2an, 2019ko otsailaren 26an eta 2019ko maiatzaren 14an, ZAEAk berretsi egin zituen proposamenak.

**4.-** Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezarritako lau hilabeteko epea igarota, AFAk ez zien proposamenei erantzun, eta ZAEAk 2019ko abuztuaren 2an aurkeztu zizkion gatazkak Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari.

**5-** 2021eko azaroaren 21ean, Arbitraje Batzordeak espedienteak metatzea erabaki zuen, eta horiek guztiak prozedura arruntaren bidez izapidetzen jarraitu zen. Hori dela eta, bete egin da AFAk alegazioak egin eta dagozkion froga eta agiriak aurkeztu eta proposatzeko izapidea; haren barruan amore eman du AFAk, eta, horrenbestez, onartu egin ditu ZAEAk proposatutako egoitza-aldaketak.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**1.-** Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio eginkizun hau: «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 2.- Metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluko igorpenari jarraikiz, eta hauxe dio:

«Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

## 3.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoak berak aurkeztu ez direnez, AFAk amore emateak, ZAEAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

**ERABAKITZEN DU**

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, AFAk amore eman baitu JR jauna eta MJ andrea ezkontideen egoitza Logroñoko S hiribidera aldatzeko egindako ZAEAREN proposamenei dagokienez, hurrenez hurren, 2013ko apirilaren 12tik eta 2005eko urtarrilaren 10etik aurrerako atzeraeraginarekin.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta JRLJAM jaunari eta MJCR andreari.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.